




G. ROA

Ideogramak eta piktogramak

Roa Zubia, Guillermo

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Txina da eredu. Han letrarik gabe idazten dute; karaktere-mota asko erabiltzen dituzte, ordea, ideiak eta kontzeptuak marrazteko, eta, beraz, zeinu grafiko asko eta asko behar dituzte adierazi nahi duten guztia idatzi ahal izateko. Horregatik, idazkera txinatarraz jabetzeko prozesua zaila da oso. Alde horretatik, mendebaldeko letrak eraginkorragoak dira idazkera-sistema gisa. Baina bi idazkerak ematen duen baino gertuago daude elkarrengandik.




UME BAT ETA TEILATU BAT; bi elementu horien marrazkiak elkartuta sortu zuten txinatarrek *zaindu* aditza adie-

razten zuen ikurra: ume bat teilatu baten azpian. Denborarekin, ikurraren itxura aldatu egin zuten; ertzak zorroztu eta hainbat marra kendu zituzten, itxura sinpleagoa eta modernoagoa emateko asmoz; itxura ez ezik, ordea, ikurraren esanahia ere aldatu zuten, eta, gaur egun, teilatupeko umearen ikurra *ideograma* adierazten duen karakterea da.

Adibide bat besterik ez da, baina oso adibide adierazgarria. Argi azaltzen du nola adieraz daitekeen ideia bat ikur bakar bat erabilita. Ikur bat, kontzeptu bat. Ez dirudi oso idazkera-sistema eraginkorra, milaka kontzeptu adierazteko milaka ikur edo karaktere behar baitira. Hala ere, beste mota bateko adibideak ere badira txineran.

Adibide horietako sinpleena piktograma da: karakterea adierazi nahi duenaren marrazkia da. *Dortoka* adierazteko ikurra, esaterako, dortoka baten marrazkia da (jakina, denboran zehar eraldatuta). Ideogramak konple-



xuagoak dira, marraztuta dagoenaz gain istoriotxo bat erabiltzen dutelako ideia abstraktu bat adierazteko. Teila-tupeko umearen ikurra halakoa da, bai eta *argitasuna* adierazteko erabiltzen dutena ere: Ilargia eta Eguzkia elkarren ondoan jarrita.

Abantaila argi bat daukate bi ikur-mota horiek. Ahoskerarekin lotuta ez daudenez, hau da, hots jakinei ez dagozkenez, txineraren edozein dialektotarako balio dezakete. Dialekto bakoitzean modu batera ahoskatu arren, denek irakur dezakete idatzitakoa. Ideogramak eta piktogramak uni-bertsalak dira edo izan daitezke. Hala ere, txinerak ez ditu piktogramak eta ideogramak bakarrik erabiltzen.

Fonetika tartean

Hotsak kodetzen dituzten ikurrak ohikoak dira txineran, ikur guztietan ohikoenak, hain zuzen ere. Bi sinbolok osatzen dituzte; lehenengoak esanahia ematen dio ikurrari eta bigarrenak adierazten du nola ahoskatu behar den.

Ama adierazten duen karakterea horren adibidea da. Itxuraz ikur bakarra da, baina bi zati ditu: ezkerraldekoa *emakumea*-ren ikurra da; eskuinekoaren esanahia, aldiz, *zaldia* da berez, baina kasu honetan balio fonetikoa du: /ma/ ahoskatzen da, eta kasu horretan adierazten du ikur osoa irakurtzen dela /ma/. Beste adibide bat *tximeleta* adierazten duen karakterea

da: ezkerraldeko sinboloa intsektuarena da eta eskuinekoa /hu/ ahoskatzekoa.

“hotsak kodetzen dituzten ikurrak ohikoak dira txineran, ikur guztietan ohikoenak, hain zuzen ere”

Konbinazioaren bide horretatik osatzen dira txinerako hiztegieta agertzen diren karaktereen % 90, baina badira beste hainbat karaktere-mota ere: besteak beste, karaktere ‘adierazleak’

dituzte, *ganean* eta *azpian* adieraztekoak, esaterako (jakina, karaktere guztiek adierazten dute zerbait, baina piktogramen eta ideogramen bidez idazten ez diren kontzeptuak idazteko balio dute hauek).

Hizkuntza guztietan bezala, maileguzko hitzak ere badituzte. Kasu horietan, ia beti, karaktereak konbinatzen dituzte esanahi berriak adierazteko. Ordenagailua adierazteko, adibidez, garunaren



Idazkera tradizionalen, karaktereak goitik behera eta eskuinetik ezkerrera irakurtzen dira. Taiwanen, adibidez, ordena horrek iraun egin du idatzietan, baina Txinan mendebaldeko ordenak hartu du indarra, alegia, ezkerririk eskuinera eta goitik beherakoak.

Karaktere txinatarren jatorria

Ezagutzen diren karaktere txinatar zaharrenak hezurretan eta dortoken maskorretan zizelkatu zituzten. Lehen aztarnak duela 8.000 urtekoak dira, baina idazkera ez zen sistematizatu duela 4.000 edo 3.500 urte arte. Bide luzea egin dute, beraz, karaktere txinatarrek. Arkeologoek horri esker jaso dute hainbat karaktereren eboluzioaren berri. Hona hemen adibide batzuk:



Ederra. Jatorrian, adarrez eta lumaz apaindutako pertsona baten marrazkia.

Erosi. Arrantzarako sare bat eta maskor bat. Maskorrek diru gisa erabiltzen zituzten.



Espiritua. Giza gorputza airean flotatzen.




Ona. Emakume bat haur bat zaintzen.

Ura. Erreka baten marrazki batetik abiatuta.



Jan. Mahai aurrean eseritako ume bat.




Ez. Landare baten sustraietatik abiatuta. Sustrai gehienak ez ziren jangarriak.

Arroz-soroa. Ikur hau beste batzuen sorreran dago.



Ilargia. Sinetsi edo ez, ilgoraren adierazpen grafikoa da.



Lasaitasuna. Interpretazio baten arabera, emakumea teiltatuaren azpian egoteak lasaitasuna ekartzen zion gizonari.

Gizona. Esku bat arroz-soroan. Normalean, gizonak lantzen zuen soroa.



Dortoka. Dortoka baten forma suma daiteke piktograma horretan.



Ibilgailua. Gurdi baten marrazkitik abiatuta.

Untxia. Untxi baten marrazki batetik abiatuta. Piktograma hutsa da.



Dragoia. Hasierako marrazkian erraz ikusten da dragoia.



Altua. Bi solairuko dorretxea.

Gorputza. Jatorrian, haurdun dagoen emakume baten irudia zen.



Pintzela. Garrantzi handiko tresna. Irudikapen zaharrenak ere pintzel sofistikatu bat erakusten du.

eta elektrizitatearen ikurrak konbinatu dituzte: garun elektrikoa. Erraza eta argia da, eta, modu horretan, ordenagailuaren karaktereak ez du eskatzen ahoskera berririk ikastea. Argi geratzen da karaktere horretan txineraren ebo-luzioa: hasieran *kalkulatze*ko *makinatik* jo zuten, baina, denborarekin, *garun elektrikoa* hobetsi zuten, ulergarriagoa zelako.

Trikimailu fonetikoak ere erabiltzen dituzte maileguak egiteko. Washington hitza idazteko, adibidez, /wah/, /sing/ eta /dun/ silabei dagozkien hiru karaktere fonetiko konbinatzen dituzte. Zer esanik ez, mendebaldeko hizkuntzek hainbat hitz txinatar mailegatu dituzte bide beretik, *tifoia* esate baterako.

Txinatik at

Idazkera konplexu hori ez da Txinan bakarrik erabiltzen. Txinera oso zabal-duta dago, besteak beste Txinaren mendeko diren edo izan diren herri askotan, baina horrek ez du esan nahi hizkuntza berdin-berdina denik guztietan. Politikak zerikusi handia du horretan. Hizkuntza sinpleagoa lortu nahian, eta batasun-idea hizkuntzaren bitartez zabaltzeko asmotan, hainbat sinplifikazio proposatu zituzten XX. mendean zehar, bai nazionalistek bai



eta komunistek ere. Txinan eta Singapurren erabiltzen dituzte forma sinplifikatu horiek, baina Hong Kongen, Taiwanen eta itsasoaz harandiko komunitate txinatarretan sistema tradizionalari eusten diote.

Japonian eta Korean karaktere asko hartu dituzte idazkera txinatarretik; *Kanji* eta *hanja* izena dute hango siste-

mek, hurrenez hurren. Sistema horietako ideograma askok eta askok 'ebo-luzionatu gabeko' forma zaharrarekin iraun dute herri horietan, eta beste batzuk han bertan sortutakoak dira. Baina, horrez gain, herri bietako idazkerek silaba fonetikoaren sistemak erabiltzen dituzte, asko sinplifikatu diren ideogramak, azken batean.

Japonian, bi sistema erabiltzen dituzte, *hiragana* eta *katakana* izenekoak; azken hori maileguzko hitzekin erabiltzen dute batez ere.

Ekialdeko herrietako idazkerak, beraz, ez dira ideograma hutsak, hitzen alde fonetikoak ere oso landuta dute. Txinan ere ahalegin berezia egiten dute hotsak kodetzeko, eta ez da harrizkoa; hizkuntzak oso aldakorrek dira eta idazkera azkar egokitu behar zaie, eta lan horretan asko laguntzen dute silabek eta letrek.

“txineraz, maileguzko hitzetan, ia beti karaktere tradizionalak konbinatzen dituzte esanahi berriak adierazteko”

Txineraren gaur egungo idazkeran, karaktere sinplifikatuak erabiltzen dira.



Letrak izatea, alfabeto bat izatea alegia, oso baliabide garrantzitsua da. Letra gutxi batzuk besterik ez da behar milaka kontzeptu idatziz adierazteko. Azken batean, hotsekin jokatzeko abstrakzio-maila baten ondorioa da, eta hori eraginkorragoa da karaktere askoko sistema bat baino, ikuspuntu 'matematiko' batetik ikusita, behintzat. Zenbakitan jarrita ederki ikusten da alfabetoen eraginkortasun hori.

Karaktere-kopurua

Txinako Qing dinastiaren hasieran, XVII. mendean, 50.000 karaktere bildu ziren hiztegi batean. Gero, urteekin, kopuru hori asko murriztu zen. Gaur egun, txinatar kultu batek 6.000 karaktere inguru ezagutzen ditu, eta

ordenagailu-sistemek 6.500 dituzte kodetuta, gutxi gorabehera. Hong Kongen eta Taiwanen kopuru hori bikoitza da, 13.000 karaktere ingurukoa.


Mendebaldeko idazkeretako alfabetoek ez dituzte hainbeste karaktere. Normalean, 27 letra maiuskula erabiltzen dituzte, 27 minuskula, 10 zenbaki-ikur, puntuazio-ikurrak (puntuak, koma, galdera-ikurra eta abar) eta hizkuntza bakoitzaren berezko ikurrak (azentuak direla edo letra bereziak direla eta abar). Gainera, azken urteotan sortu edo, behintzat, barneratutako sinboloak ere agertzen dira, @ kasu (agian, horiei matematikako ikurrak eta horrelakoak ere gehitu beharko genizkieke). Horiek guztiak kontuan hartuta ere, 100 karaktere inguru erabiltzen dituzte mendebaldeko idazkerak; eta kopuru horrekin ia edozein kontzeptu adieraz dezakegu idatziz.

Ikuspuntu horretatik ez dago zalantzarik: mendebaldeko alfabetoak ekialdeko karaktere-sistemak baino askoz eraginkorragoak dira. Seguru asko egia da hori, eta horregatik ari dira ekialdeko idazkerak sinplifikatzen eta, tradizioak uzten duen heinean, ikur edo karaktere fonetikoak barneratzen. Baina gauzak ez dira hain sinpleak.

Mendebaldeko piktogramak

Mendebaldeko idazkerari erreparatuz gero, erraz aurkitzen dira piktogramak

Asiaren ekialdeko herrietan idazkera arte bilakatu zuten. Horregatik du pintzelak hainbesteko garrantzia, kaligrafiaren arterako ezinbesteko tresna delako.



MEC

Mendebaldeko herrietan ideogramak eta piktogramak ohikoak dira, nahiz eta gehienak idazkeratik kanpo erabiltzen ditugun.



G. ROA

“mendebaldeko idazkerari erreparatuz gero, erraz aurkitzen dira piktogramak eta ideogramak”

eta ideogramak. Zenbakiak, adibidez. Jatorrian, zenbakiak angelu zorrotzen bitartez adierazten zituzten kantitateak. Zerok ez du angelurik; batak angelu zorrotz bakarra du; biak bi angelu zorrotz eta abar. Piktograma hutsak dira. Denborarekin biribildu egin dira,

eta angelu zorrotzak desagertu egin dira, baina esanahiak gaur arte iraun du, txinatarren dortokaren piktogramak bezala. Hain zuzen ere, zenbaki piktografikoez arrakasta handia izan dute Txinan ere. Argi dago 3 ikurra *hiru* hitza baino eraginkorra dela kasu askotan; hizkuntzaren arabera, *hiru* idatziko dugu, edo *tres*, *trois*, *three*, *drei*, *tre* edo *três*, baina hiztun horiek guztiek ulertzen dute 3 ikurra.

Horrez gain, mendebaldeko jendea piktogramaz eta ideogramaz inguratuta bizi da. Oinezkoentzako semaforoetan bi ideograma izaten dira: batek errepidea zeharkatzeko baimena ematen du eta besteak debekatu egiten du. Ez dira araututako ideogramak, baina ulertzen dira. Komuneko ateetan jartzen diren gizonezkoen eta emakumezkoen marrazkiak ere ideogramak dira, azken batean. Eta beste adibide-piloa dago.

Izan ere, mendebaldeak ere badu ideogramen eta piktogramen beharra. Idazkera-sistema baten barruan daude, ez beti araututa, eta ez beti testu baten barruan erabiltzeko, baina badaude. Teilatuaren azpiko umea, ideograma alegia, mundu osoan dago ikusgai, betiere, lekuan lekuko beharretara egokituta.